

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

5311

AGINDUA, 2015eko abenduaren 10ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuarena, zeinarekin deialdia egiten baita, batetik, hirugarren herrialdeetan mahastizaintza eta ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako zein -ekintzetarako laguntzena, eta, bestetik, ardogintza eta mahastizaintzako sektorea bultzatzeko programaren inbertsiorako laguntzena, betiere 2016ko ekitaldiari dagokionez.

Erkidegoko mahastizaintza eta ardogintzako ekoizleen lehiakortasuna areagotzeko eta haien ardoen kalitatea finkatzeko, mahastizaintza eta ardogintzako merkatuaren erakunde komun bat ezarri da. Erkidegoko araudiak ezarritako babes-neurrien artean, erkidegoko ardogintzako produktuak hirugarren herrialdeetako merkatuetan sustatzea sartzen da.

Merkatuen erakunde komun hori (MEK) honako arau hauen arabera ezarri da: Kontseiluaren 2008ko apirilaren 29ko 479/2008 (EE) Erregelamendua, eta Batzordearen 2008ko ekainaren 27ko 555/2008 (EE) Erregelamendua –Kontseiluaren 479/2008 (EE) Erregelamendua garatzeko arauak ezartzen dituen–, zeina Batzordearen 2010eko irailaren 1eko 772/2010 (EB) Erregelamenduak aldatu baitzuen. Era berean, MEK hori 1234/2007 (EE) Erregelamenduan sartu zen (erregelamendu hori bakarra zen MEKentzat). Bestalde, Batzordearen 2008ko ekainaren 27ko 555/2008 (EE) Erregelamendua aldatu egin da orain dela gutxi, Batzorderen 2013ko martxoaren 8ko 202/2013 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren bitartez aldatu ere. 1234/2007 (EE) Erregelamendua, berriz, indargabetu egin da, eta txertatu egin da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1308/2013 (EE) Erregelamenduan, zeina orain dela gutxi argitaratu baita. Azken erregelamendu horren bidez, sortu da nekazaritza-produktuen merkatuen erakunde komuna, eta, aldi berean, baliogabe utzi dira erregelamendu hauek: 922/72 (EEE), 234/79 (EEE), 1037/2001 (EE) eta 1234/2007 (EE).

Estatuan, 2013ko uztailaren 20an argitaratu zen uztailaren 19ko 548/2013 Errege Dekretua, zeina abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuaz indargabetu eta ordeztu baitzen. Azken dekretu hori: Mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreari laguntzeko 2014-2018 programako neurriak aplikatzeari buruzkoa da, eta uztailaren 31ko 740/2015 Errege Dekretuaz aldatu zen. Abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuan, II. kapituluko 1. sekzioan, jasotzen da «Hirugarren herrialdeetako merkatuetan promozioa» neurria, eta 4. sekzioan, «Inbertsioak» neurria jasotzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoan, abenduaren 22ko 630/2009 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoan mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko Europako Erkidegoak emandako neurriak garatzeko eta aplikatzeko denak– ezarri zituen Europako Erkidegoko erregelamenduak eta Estatuko oinarrizko araudia garatu eta aplikatzeko arauak. Dekretu hori azaroaren 15eko 234/2011 Dekretuaren bidez aldatu zen.

Erkidegoko araudian nahiz Estatuko oinarrizko legedian aldaketa ugari egin dira; horrenbestez, abenduaren 9ko 227/2014 Dekretua argitaratzea erabaki zen. Dekretu hori: Euskal Autonomia Erkidegoan mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko Europako Erkidegoak emandako neurriak garatu eta aplikatzeari buruzkoa da, eta indargabetu eta ordeztu egiten du abenduaren 22ko 630/2009 Dekretua, laguntza horiek arautzen dituzten arau nagusietan aldaketak sartzeko. Agindu honen bitartez aplikatu egiten da abenduaren 9ko 227/2014 Dekretuko 7.2, 9., 17.2 eta 19. artikuluetan xedatutakoa, eta horrez gain, 2015-2016 aldirako laguntzen deialdia bat egiten da,

bai ardogintza eta mahastizaintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako eta -ekintzetarako laguntzena, bai inbertsiorako laguntzena.

Agindu honen bidez deialdia egiten da, abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuaren II. kapituluaren 1. eta 4. sekzioetan aurreikusitako inbertsio-laguntzak emateko dena, baina laguntza horien gastua FEAGA 2015-2018 aurrekontuari egotziko zaio. Horrenbestez, laguntza horiek eraginkorrak izateko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2016ko Aurrekontu Orokorretan behar bes-teko kreditua eduki behar da, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditenteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzko 2007ko apirilaren 26ko Aginduan. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eskabideak aurkeztea.

1.– 2016-2017 kanpainan, hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuen sustapen- eta informazio-programak zein ekintzak burutzeko laguntzak eta inbertsioetarako laguntzak jaso nahi badira, eskabideak Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari zuzendu beharko zaizkio, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren bulegoetan –Gasteizko Donostia kalea 1, 01010– aurkeztu beharko dira, edo bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 38.4. artikuluan aurreikusitako tokietako batean. Laguntza horiek honako arau hauetan aurreikusten dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1308/2013 (EE) Erregelamenduan; abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuan.

2.– Hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuen informazio- eta sustapen-programak eta -ekintzak gauzatzeko laguntzetarako eskaerak, 2016ko otsailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira. Bestalde, inbertsioetarako laguntzen eskaerak, 2016ko otsailaren 1a baino lehen aurkeztuko dira.

3.– Agindu honetan jasotako laguntza-eskabidearen eredia onartzen da. web-orri honetatik eskuratu ahal izango da: <http://www.euskadi.net>. Aurkezten den eskabidea informatikoki bete eta grabatu behar da, <http://www.euskadi.net> web-orrian, eta gero, sinatuta aurkeztu, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzan.

Bigarrena.– Egokitzena.

1.– Laguntza horiek honelaxe arautuko dira: batzordearen 2013ko martxoaren 8ko 202/2013 (EB) Betearazpen Erregelamenduan eta abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuan –biak ere Estatu espainiarrean bete beharrekoak– eta abenduaren 9ko 227/2014 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

2.– 2016-2017 ekitaldiko laguntzak arautzen dituen legedia ezagutarazteko, abenduaren 9ko Dekretuaren 7.2 eta 17.2 artikuluetan xedatutakoa betez, agindu honen eranskinetan jasoko da araudia, ekitaldi honetan aplikatzekoa zein erreferentziazkoa.

Hirugarrena.– Baldintza.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako gastu-espeditenteen alde aurretiko izapidetzea arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan aurreikusitako ondorioetarako, agindu hau eraginkorra izateko, kreditu egokia eta behar hainbatekoa izan beharko da Euskal Autonomia Erkidegoaren 2016ko Aurrekontu Orokorretan, behin betiko ebazpenaren unean.

2015eko abenduaren 18a, ostirala

Laugarrena.– Bateriaezintasunak.

Agindu honen bidez deitzen diren laguntzak bateraezinak dira helburu bereko laguntzekin, eta bereziki, nekazaritzako produktuak eta elikagaiak eraldatu, merkaturatu eta sustatzeko laguntzak emateko (Lehiatu programa) urriaren 7ko 172/2008 Dekretuan mahastizaintza eta ardogintza arloan inbertitzeko aurreikusitako laguntzekin.

Bosgarrena.– Baliabideak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke nekazaritza-gaietan eskumena duen sailburuari, hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Seigarrena.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 10a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

HIRUGARREN HERRIALDEETAN ARDOGINTZAKO PRODUKTUEN INFORMAZIO- ETA SUSTAPEN-EKINTZETARAKO ETA -PROGRAMETARAKO LAGUNTZEI APLIKATZEKO ARAUDIA.

I.– Ekintza-motak eta programen iraupena.

1.– Kontseiluaren eta Europako Parlamentuaren abenduaren 17ko 1308/2013 (EB) Erregelamenduko 45. artikulua jaso ahal izango ditu abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuaren I. eranskinean zerrendatutako ekintza eta jardueretarik edozein.

2.– Ekintza horiek informazio- eta sustapen-programa baten baitan gauzatu beharko dira, ahal bada.

3.– Programazio-aldi bakoitzari dagokionez, programek gehienez ere hiru urteko iraupena izan dezakete, onuradun eta herrialde bakoitzeko. Dena den, gehienez ere beste bi urterako luzatu ahal izango dira, gehienez ere, baldin eta aurrez eskatzen bada, abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuko 8.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

II.– Onuradunak.

1.– Jarraian adierazitako hauek aurkez ditzakete hirugarren herrialdeetan sustapen-neurriak finantzatzeko laguntzen eskabideak.

a) Ardogintzaren arloko enpresek.

b) Ekoizleen erakundeak, ekoizleen erakundeek osatutako elkarteak eta lanbide arteko erakundeak; zehazki, Kontseiluaren Europako Parlamentuaren abenduaren 17ko 1308/2013 (EB) Erregelamenduko 152., 156. eta 157. artikulua definituak, baldin eta estatu kideak errekonozituak badira eta ardoa merkaturatu eta sustatzearen arloan ekimenak gauzatzeko helburua badute.

c) Babestutako jatorri-deiturak eta ardogintzako adierazpen geografiko babestuak kudeatzen dituzten organoek.

d) Partaide bakartzat ardogintzaren sektoreko enpresak dituzten esportazio-elkarteak eta esportazio-partzuergoak.

e) Euren helburuen artean ardoak kanpoan sustatzea duten eta eskusiboki ardogintzaren sektoreko enpresen partaidetza duten irabazi asmorik gabeko elkarteak.

f) Bigarren edo hurrengo graduako kooperatibak, upategien kooperatiba elkartuek egindako ardoak merkaturatzen dituztenak.

g) Aurreko puntuetan adierazitako onuradun motei dagozkien programak onartu ondoren aurrekontuan behar beste diru badago, onuradun gisa hartuko dira, halaber, hirugarren herrialdeetan ardo espainiarrak sustatzeko jarduerak garatzeko legezko eskumena duten erakunde publikoak.

2.– Onuradunek demostratu beharko dute, bai hirugarren herrialdeekin merkataritza-harremanak izateak eskatzen dituen eskakizunei aurre egiteko nahikoa gaitasun teknikoa eta finantzarioa dituztela, bai neurria ahal bezain modu eraginkorrean ezartzea bermatzeko baliabideak dituztela Horrez gain, egindako sustapenaren ondorio gisa sor daitezkeen eskaeren aurrean erantzuna ziurtatzeko, produktuaren erabilgarritasuna bermatu beharko dute, bai kuantitate aldetik bai kalitate aldetik ere.

III.– Produktu eta herrialde onargarriak.

1.– Sustapen-neurriak aplikatu ahal izango zaizkie abenduaren 19ko 1079/2014 Errege

Dekretuaren II. eranskinean zehaztuta dauden kalitatezko produktu izanik zuzeneko kontsumorako direnei, baldin eta hirugarren herrialdeetan merkataritza-irteerak edo esportatzeko aukerak badituzte eta kategoria hauek batean sartzen badira:

- a) Babestutako jatorri-deitura duten ardoak.
- b) Babestutako adierazpen geografikoa duten ardoak.
- c) Ardogintzako mahatsaren aldaera zehaztuta duten ardoak.

2.– Sustapen-neurriak herrialde guztietan egin daitezke, baina lehentasuna emango zaie abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuaren III. eranskinean zehaztutakoei.

IV.– Ekintzen eta programen ezaugarriak.

1.– Ekintzak eta programak oso argi definituta egon behar dira, eta bereziki zehaztuko dira zein herrialdeetarako izango diren, zein ardo mota sartzen diren, burutu nahi diren neurriak eta horietako bakoitzak gutxi gorabehera zer kostu izango duen.

2.– Ekintzak 12 hilabeteko epeetan banatuko dira, eta epe horiek, urtero, ekainaren 1ean hasiko dira.

3.– Produktuaren berezko ezaugarrietan oinarrituko dira mezuak, eta hirugarren herrialdeetarik zeintzuetara destinatzen diren, haietan aplikagarri den arauari egokitu beharko dira.

4.– Adierazpen geografikoa duten ardoen kasuan, informazio- eta sustapen-kanpainaren baitan produktuaren jatorria zehaztu beharko da.

5.– Aurreko paragrafoetan (3. eta 4. paragrafoak) xedatutakoaren aurka egin gabe, marken erreferentziak mezuaren parte izan ahalko dira, egoki bada.

6.– Abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako kide anitzeko organoak –neurriaren koherentzia eta eraginkortasuna bultzatzekotan– informazio- eta sustapen-kanpainari buruzko ildoak ezar ditzake urtero, eta sekzio horretan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

V.– Balorazio-irizpideak.

Aurkeztutako eskabideen balorazioa bi fasetan egingo da:

b) Programen kalitatea ebaluatzeko fasea. Abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuko V. eranskineko 1. paragrafoan ezarritako irizpideekin bat etorritako puntuatuko dira programak. Aipatu paragrafoan ezarritako guztizko puntuazioaren % 50 (gutxienez) lotzen duten programak onartutzat joko dira, horietatik bakarrik.

c) Lehentasun-irizpideak aplikatzeko fasea, aurreko fasea gainditu dutenei bakarrik aplikatu dakiekeena. V. eranskineko 2. paragrafoa irizpideekin bat etorritako da puntuazioa.

Abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuko V.2.3.a eranskinean aurreikusitako irizpidez gain, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez interesa baloratzeko irizpide hauek aplikatuko dira –betiere, abenduaren 9ko 227/2014 Dekretuko 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritakoa–:

- a) Kalitate-ikurren bati lotutako produktuak dituzten programak..... 6 puntu gehienez.
- b) EAEn transformatutako produktuak dituzten programak..... 4 puntu gehienez.

VI.– Ekintzak eta programak aldatzea.

1.– Ezingo dira produktuak, ekintzak eta ekintzen eta programen kostuak aldatu, proposatutako aldaketekin emaitza hobekak lortuko direla argi dagoenean salbu. Horrelako aldaketak egiteko, alde aurretik autonomia-erkidegoan eskumena duen organoari jakinarazi behar zaizkio, proposatutako aldaketak azter ditzan, eta, dirulaguntza jasotzeko behar diren eskakizunak betetzen badituzte, baimendu ditzan.

2.– Ezingo dira, inondik inora, programetarako onetsitako aurrekontuak gorantz aldatu, ezeta beste herrialde batzuk sartu ere.

3.– Hainbat urtetarako programen kasuan, hasi gabeko urterokoei eragiten dieten aldaketak jakinarazi beharko zaizkio Eusko Jaurlaritzan elikagai-industrietan eskumenak dituen zuzendaritzari, urte bakoitzeko otsailaren 15a baino lehen jakinarazi ere, onar ditzan, eta zuzendaritza horrek, halaber, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari jakinaraziko dizkio, apirilaren 1a baino lehen.

VII.– Finantzaketa.

1.– Hautatutako programen finantzazioan, Europar Batasunak duen partaidetza finantzarioak ez du gaindituko diruz lagun daitezkeen gastuen % 50a. Bi edo hiru urteko iraupena duten programei dagokienez, exekuzio-urte bakoitzarekiko kontsideratuko da gehienezko epemuga hori.

Diruz lagun daitezkeen gastuen % 50eko finantza-laguntza honako programa hauei soilik emango zaie: Sektoreko Konferentzian onartutakoaren % 75eko edo hortik gorako exekuzioa dutenei.

Sektoreko Konferentzian onartu aurrekontuaren % 50etik % 75era bitartekoa bada exekuzioa, programa horretarako laguntzaren zenbatekoa honelaxe kalkulatu da: ebazpenean onuradunari errekonozitutako laguntza kenduz exekutatutako aurrekontuaren zenbatekoari.

2.– Dagokion ekitaldirako laguntza-programaren fitxa finantzarioan neurrirako destinatutako aurrekontuaren % 5etik ez da pasako laguntzaren zenbateko maximoa, onuradun bakoitzeko. 5. artikuluko b), c) eta f) idatzi-zatietan zehaztu onuradunari ez zaie aplikatuko muga hori, betiere aurkeztutako programak ez badira zentratzen marka baten sustapenean.

3.– Onuradunen ekarpen ekonomikoa tarifetatik eta finantza-zergetatik eratorri ahal izango da.

VIII.– Aurrerakinak.

1.– Onuradunek, baldin eta ez badira erakunde publiko, Erkidegoaren urteko ekarpenaren zenbatekoaren % 80a irits daitekeen aurrerakina jasotzeko eskabideak aurkez ditzakete, Eusko Jaurlaritzan elikagai-industrien arloan eskumenak dituen zuzendaritzan aurkeztu ere.

2.– Aurrerakina ordaintzeko, erakunde pagatzailearen aldeko berme bat osatzea eskatuko da, aipatutako aurrerakin horren % 110eko zenbatekoa duena; betiere, Batzordearen martxoaren 28ko 282/2012 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren III. kapituluaren ezarritakoaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian aurkeztu beharko dira bermeak.

3.– Onuradunak, dagokion urteko saldoa ordaintzeko eskabidearekin batera, gastuen aitortzen bat aurkeztu beharko dio erakunde pagatzaileari, uztailaren 31 baino lehen, agindu honen III. eranskinean zehaztutako formatuan; aitortzen horretan, aurrerakina dagokion urtean erabili izana justifikatu beharko du, bai eta erabili gabeko aurrerakinaren gainerako saldoa ere.

IX.– Ordainketak.

1.– Erkidegoaren urteko ekarpena ordainketa bakarrean edo bitarteko ordainketen bidez jasotzea

eskatu ahal izango da. Egindako eta ordaindutako ekintzei egingo diete erreferentzia eskabideek.

2.– Ordainketa guztiak banku-kontu baten bitartez egingo dira, eta kontu hori xede horretarako bakarrik erabiliko da.

3.– Eusko Jaurlaritzan elikagai-industriaren arloan eskumena duen Zuzendaritzaren aurrean aurkeztu behar dira bitarteko ordainketetarako eskabideak, lau hilabeteko epe bakoitza bukatu eta hurrengo hilabetea amaitu baino lehen, ekainaren 1etik hasita.

Bitarteko ordainketek eta abenduaren 19ko Errege Dekretuaren 14. artikuluan aurreikusitako aurrerakinaren ordainketak ezingo dute, batera, gainditu Erkidegoaren ekarpen guztikoaren % 80a.

4.– Urteko bakoitzaren ekintzak bukatu ondoren, eta uztailaren 1a baino lehen, onuradunak laguntzaren saldoa ordaintzea eska dezake, Eusko Jaurlaritzan elikagai-industrien arloan eskumenak dituen zuzendaritzaren aurrean edo Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsaren aurrean, hala badagokio.

5.– Autonomia-erkidegoak edo Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsak gehienez 75 eguneko epean burutuko du ordainketa, ordainketaren eskabide osoa jaso duen egunetik zenbatzen hasita.

6.– Ordainketa-eskabideak, onar daitezten, gutxienez honako agiri hauekin batera aurkeztu beharko dira:

a) Txostena, jardueretan banaturiko ekintzak laburbiltzen dituen, betiere honakoak jasoaz: aurrekontuaren zenbatekoa, jarduera bakoitzaren amaierako kostua, eta lortutako emaitzen ebaluazioa, txostenaren egunean egiazta daitekeena.

b) Egindako ordainketen fakturak eta gastu-ziurtagiriak. Zenbait ekintza, zeintzuen exekuzioa zerbitzu-hornitzaileekin azpikontratatu den; bada, horien kasuan, hornitzailearen faktura eta ordainketa egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko dira.

c) Epigrafe honen 2. atalean aipatutako banku-kontuaren kontu-laburpena, non ziurtatzen baita atal honetako b) idatz-zatian aipatu fakturen fakturen bidez justifikatutako ordainketak gin izana.

7.– Ordainketak egiteko, auditatutako kontuak eta kontu-auditoretzaren txostenak aurkeztu beharko dira, legez aitortutako kontu-auditore batek edo auditoretza-sozietate batek egindakoak; halakorik ezean, epigrafe honen 6. paragrafoan aipatutako fakturen eta dokumentuen adostasun-agiria eman beharko du Eusko Jaurlaritzan elikagai-industrien arloan eskumenak dituen zuzendaritzak.

8.– Era berean, ekintzak teknikoki justifikatzeko, onuradunari eska dakioke sustapen-ekintzak egin izana egiaztatzeko frogabideak aurkezteko.

9.– Bestalde, sustapen-jarduerak egiten dituen enpresako langileen kostuak diruz lagundu ahal izango dira. Onuradunaren kostu orokorrak ere lagundu ahal izango dira diruz, baldin eta programaren laburbilketa-aurrekontuko berariazko kontu-sail batean kontsignatzen badira kostuok. Gastu horiek diruz laguntzeko baldintzak dira uztailaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuaren VII. eranskinean jasotakoak.

10.– Aitzitik, ezingo dira diruz lagundu abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuaren VIII. eranskinean aipatutako kostuak.

X.– Bermeak kentzea.

1.– Abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuaren 14. artikuluan jasotako bermea liberatu

gingo da, Erakunde Pagatzaileak errekonozitzen duenean aurreratutako zenbatekoa jasotzeko eskubide behin betikoa.

2.– Abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuaren 11. artikuluan jasotako bermea baliozkoa izango da harik eta saldoa ordaindu arte, eta liberatu egingo da autonomia erkidegoko Erakunde Pagatzaileak berme hori ezeztatzea erabakitzen duenean.

XI.– Materiala egiaztatzea.

Diru-laguntzaren onuradunek ziurtatu beharko dute ezen, informaziorako eta sustapenerako prestatutako materiala –programen markoan sartzen dena– bat datorrela, bai Erkidegoko araudiarekin, bai programa garatuko den hirugarren herrialdeko legediarekin. Horretarako, onuradunak erantzukizunpeko adierazpen aurkeztu beharko du, autonomia-erkidegoaren aurrean; adierazpen horretan, zehaztu beharko da ezen, aplikatzeko den araudia bete egiten dela, eta materiala bat datorrela harekin.

II. ERANSKINA

INBERTSIOETARAKO LAGUNTZEI APLIKATZEKO ARAUDIA

I.– Aplikazio-eremua.

Ardogintza-sektoreko enpresen errendimendu globala hobetzarren eta merkatuko eskariei egokitzearren, eta bai lehiakortasuna areagotzarren ere, laguntza finantzarioa emango zaie inbertsio material zein inmaterialei, baldin eta ardogintzako azpiegitura- eta transformazio-instalazioetan edo merkaturatze-tresna eta -egituretan egiten badira. Emango dira. Halaber, energia-aurrezpena areagotzeko, eta eraginkortasun energetiko globala eta prozesu jasangarriak hobetzeko.

Kontseiluaren eta Europako Parlamentuaren 1308/2013 (EB) Erregelamenduaren VII. eranskineko II. partean aipatu ardogintzako produktuak –Espainiako lurraldean egindakoak– ekoitzi zein merkaturatzearen arlokoak izango dira inbertsio horiek.

II.– Onuradunak.

1.– Honako enpresak izan daitezke inbertsio-neurriaren onuradunak: ardogintzako produktuak merkaturatzeko edo transformatzeko jarduerak (edo jarduera mota biok batera) egiten dituztenak.

Laguntza-eskabidea aurkeztu baino lehen hasi beharko du enpresak jarduerak burutzen, edo, bestela, laguntza-eskabidea eragiten duen inbertsio-proiektua exekutatzean hasi beharko du haiek gauzaten.

Hala ere, eskabidea egiten dutenen jarduera ardogintzako produktuak merkaturatzea besterik ez bada edo izango bada, orduan betekizun hauek konplitu beharko dituzte, modu egokian:

a) Jardunean den enpresa bada, zarratutako azken ekitaldiko fakturazioaren % 80k etorri beharko du ardogintzako produktuak merkaturatzetik.

b) Eskabidea eragiten duen inbertsio-proiektua exekutatzean hasten badu jarduera enpresak, honako konpromisoa hartu beharko du: inbertsioek irauten duten bitartean, urteko fakturazioaren % 80k ardogintzako produktuak merkaturatzetik etorri beharko du.

Guztiarekin ere, laguntzaren onuraduna izango da azken buruko arduraduna proiektua amaitzeari dagokionez, hala moldez ezen inbertsioko gastua bere kontabilitatean sostengatuko baita.

2.– Abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuko 62.1 artikuluan aipatzen den laguntza-tasa maximoa, aplikatuko zaie enpresa txikiei eta ertainei eta mikroenpresei, horixe adierazten baita Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan.

Abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuko 62.1 artikuluan aipatzen den laguntza-tasa maximoa, % 50ean murriztuko zaie honako enpresa hauei: 2003/361/EE Gomendioko I. tituluaren 2. artikuluko I. paragrafoak estaltzen ez dituenak, 750 langile baino gutxiago izanik edo 200 milioitik beherako negozio-bolumena.

Abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuko 62.1 artikuluan aipatzen den laguntza-tasa maximoa, % 25ean murriztuko zaie honako enpresa hauei: 2003/361/EE Gomendioko I. tituluaren 2. artikuluko 2. paragrafoak estaltzen ez dituenak, 750 langile edo gehiago izanik edo edo 200 milioiko edo hortik gorako negozio-bolumena izanik.

3.– Enpresa txiki edo ertain edo mikroenpresa ez badira, eskatzaileen langile kopurua eta negozio-bolumena kalkulatzeko, Batzordearen 2003/361/EE Gomendioan halakoentzako ezarritako kalkulu-irizpideak erabiliko dira.

4.– Enpresak demostratu egin beharko du ekonomikoki bideragarria dela.

Gorago esandakoa hala bada ere, beherago zehaztutako zirkunstantziaren baten barruan diren enpresek ezin izango dute jaso aipatu laguntza:

a) Eskabidea egiten duen enpresa krisian egotea; betiere, krisian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko laguntza estataleki buruz Erkidegoko gidalerroetan zehaztutakoaren arabera, eta krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Gidalerroetan xedatutakoaren arabera (Batzordearen 2014-07-31ko 2014/C 249/01 Komunikazioa).

b) Enpresa eskatzailea: borondatezko konkurtso-deklarazioa eskatu izanaren prozesuan izatea, prozedura batean kaudimengabetzat joa izatea, konkurtsoan egotea, salbu eta konkurtsoak hitzarmen bat hartua izan eragingarritasuna, esku-hartze judizial batean izatea edo Konkurtsoei buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearekin bat etorritik desgaitu izatea, amaitu ez delarik, betiere, konkurtso gisa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia.

c) Enpresa eskatzaileak egiztatu gabe izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneraturik dituela, eta, orobat, diru-laguntzak itzultzeko obligazioak beterik dituela.

5.– Onuradunek eutsi egin beharko diote inbertsioari; betiere, bat etorritik Kontseiluaren eta Europako Parlamentuaren abenduaren 17ko 1308/2013 (EB) Erregelamenduko 505. artikuluekin.

Era berean, laguntzaren xede den ekoizpen-jarduera eta horrekin lotutako azpiegiturak transmititzen diren kasuetan, iraungarkortasuna eskatuko zaie eskuratzailaiei, eta agintaritzak eskudunaren aurrean egiaztatu beharko da zirkunstantzia horren berri izanik onartu egiten dutela. Halakorik ez bada, eta itzulketarik egin behar bada, laguntzaren onuradun originalarekikoa eskatuko da.

III.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak, eragiketak eta jarduerak.

1.– Abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuan, XV. eranskinean, deskribatzen diren inbertsio material eta inmaterialei loturiko jarduerak onartu ahal izango dira.

2.– Diruz lagundu ahal izango dira Batzordearen 2008ko ekainaren 27ko 555/2008 (EE) Erregelamenduaren 17. artikuluko a) eta b) idatzi-zatietan jasotako gastuak, eta idatz-zati horiei lotuta c) idatzi-zatian jasotzen diren gastu orokorrak, % 8ra arte zehazki. Oroharreko prezioko edo ustegabekoengatikoko partida orokorrak ez dira lagunduko diruz.

«Produktu onargarri berrien garapena» neurriko inbertsioetarako, Batzordearen 2008ko ekainaren 27ko 555/2008 (EE) Erregelamenduko 18. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

3.– Aitzitik, ezin izango dira diruz lagundu abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuaren XVII. eranskinean deskribatutako gastuak.

4.– Laguntza-eskabidearekin aurkeztu eta laguntza jaso dezaketen gastuek bete egin beharko dituzte kostuak moderatzeko irizpide hauek:

a) Oro har, laguntza eskatzen duenak, gutxienez, hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu; edonola ere, obrarako konpromisoa kontratu aurretik, zerbitzua eman edo ondasuna entregatu baino lehen, salbu eta –dauzkan ezaugarri bereziak direla-eta– merkatuan ez izan haiek burutu, eman edo entregatu dituzten aski entitate, betiere honako zirkunstantzietako bat jazotzen bada:

1) Obra zibilen gastuen kasuan, BEZetik aparte den gastua, diruz lagun daitekeena, 50.000 eurokoa edo hortik gorakoa izatea.

2) Zerbitzuak, hornidurak, instalazioak eta makineria erosteko gastuen kasuan, BEZetik aparte den gastua, diruz lagun daitekeena, 18.000 eurokoa edo hortik gorakoa izatea.

Aurkeztutako eskaintzen artean egindako hautua, zeina eskabidearekin batera aurkeztu beharko baita, eragingarritasun- eta ekonomia-irizpideekin bat egin beharko da; eta proposamen ekonomiko abantailatsuena eta egindako hautua ez badira bat, azken hori berariaz justifikatu beharko da.

b) Goragoko hori hala bada ere, XVI.2 eranskinean xedatutakak eragiten dien gastuek ez dituzte gaudituko hartan zehaztu gehieneko zenbatekoak; eta inbertsio-proiektu baten aipatu gehienekoak gauditzen badira, neurritz kanpokoa ezin izango da lagundu diruz.

Diru-laguntza emakida baten onartutako inbertsioa, diruz lagun daitekeena, aldatzen den kasuetan, bermatu egin beharko da, bai gastu berri orok bete egiten duela a) letran aurreikusitakoa, bai b) letran adierazi mugak ez direla gauditzen, eta ordainketa-eskabideen izapideketan jaso egin beharko dira ziurtapen horiei buruzko agiriak.

Horrez gain, autonomia erkidegoek baldintza gehiago ezar ditzakete; zehazki, kostuak moderatuko direla areago bermatzen dutenak.

IV.– Proiektuen ezaugarriak.

1.– Inbertsio-proiektuak argiro definitu beharko dira; hartarako, jarduerak/eragiketak espezifikatuz, eta eragiketa bakoitza osatzen duten gastu-kontzeptuak eta haietako bakoitzerako kalkulaturako kostuak zehaztuz; edozelan ere, kostu-moderazioa zainduaz, nola 555/2008 (EE) Erregelamenduko 77. artikuluan zehazten den, halaxe; eta EBko beste herrialde batzuetan, Espainiaz bete batzuetan, egin beharreko merkaturatzea-inbertsioei dagokienez haren kokaleku konkretua adierazi beharko da.

2.– Urtebetekoak nahiz hainbat urtetarakoak izan daitezke inbertsio-proiektuak, halako moldez ezen diru-laguntza emateko ebazpen berean jaso ahal izango baitira administrazio eskudunaren aurrean –NBEFko ekitaldi ezberdinetan– justifikatu beharreko eragiketak, betiere honako muga hauekin:

a) NBEFko ekitaldi jakin baterako onartutako eragiketei dagokienez, onuradunak administrazio eskudunaren aurrean justifikatu beharko ditu, NBEFko ekitaldi horretako apirilaren 30a baino lehen; nahiz eta autonomia erkidegoko agintaritzak eskudunak beste epe murriztago batzuk zehaztu ahal izango dituen.

b) Edozelan ere, NBEF2018 ekitaldia amaitu baino lehen egin beharko dira hemen arautzen diren laguntzen ordainketak.

Onuradunari egotzi dakizkiokeen arrazoiak direla-eta epe horiek betetzen ez badira, laguntza ematea ezeztatzea eragin lezake zirkunstantzia horrek.

3.– Inbertsioak ezin izango dira hasi laguntza-eskabidea aurkeztu aurretik, XVII. eranskinean, 5.a) eta 5.b) idatzi-zatietan, adierazitako gastuak salbu; izan ere, eskabidearen dataz lehenagoko hamabi hilabeteetatik hara hartu ahalko dira kontuan gastu horiek.

Ebazpena eman aurretik inbertsio-proiektuen jarduerak gauzatzen hasteak ez dakar administrazioaren inongo konpromisorik laguntza emateari dagokionez.

V.– Aldaketak inbertsio-proiektuetan.

1.– Onuradunak ezka dezake inbertsio-proiektuan zehaztutako jardueretan aldaketak egitea, ebazpenez onartutako ekitaldiko (FEAGako) otsailaren 1a baino lehen.

2.– Onartutako inbertsio-proiektu bat aldatzeak honako hauek badakartza: onuradunak eta epeak

aldatzea, aurreikusitako eragiketak edo exekuzio-egutegia aldatzea, edo emakida-ebazpenean adierazi baldintza espezifikotarik edozein aldatzea; bada, orduan alde aurretiko baimena behako da, Eusko Jaurlaritzan elikagai-industrien arloan eskumenak dituen zuzendaritzak emana, betiere eskabide egokia aurkeztu ondoren.

Edozelan ere, hura onartzeko, kontuan izango dira ondoren zehaztutako baldintzak eta mugak.

a) Proiektuaren azken buruzko helburua kanbiatezea dakarren aldaketarik ez da onartuko.

b) Ez dira ez onartuko onuraduna kanbiatezea dakarren aldaketarik, salbu eta sozietatea eraldatzearen eta beste batzuekin batzearen ondoriozkoa izan berria, laguntza emateko kontuan izandako baldintzak ez aldatu eta 55. artikuluan aurreikusi iraunkortasuna eskatu onuradun berriari.

c) Ezarritako baldintzak –hasieran onartu eta diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 70ean– ez exekutatzea dakartzaten aldaketak ez dira onartuko.

d) Ordainketak FEAGako ekitaldi batetik bestera eramatea dakartzaten aldaketak onartu egin ditzakete autonomia erkidegoek. Baldin eta aldaketa bat onartzeak hau badakar: FEAGako ekitaldi baten edo gehiagotan, autonomia erkidegorako onartu zenbatekoa gehitzea; bada, orduan Elikagai Industrien Zuzendaritza Nagusiari egin beharko zaio eskabidea, zeinak proposamen bat egingo baitu, zeina Nekazaritza eta Landa Garapenerako Sektoreko Konferentziaren txosten lotesle baten pean jarriko baitu, betiere aurrekontu-zuzkidura eskuragarria kontuan izanik.

3.– Artikulua honetan aipatutakoa gorabehera, elikagai-industrien arloan eskumenak dituen zuzendaritzak, salbuespenez, onartu egin ditzake emakida-ebazpenaren aldaketak, gorago idatzi-zatietan zehaztu baldintzei egokitzen ez zaizkienak, betiere 2009ko urtarrilaren 19ko 73/2009 (EE) Erregelamenduko 31. artikuluan zehaztutakoarekin bat datozen aparteko zirkunstantzietan edo ezinbesteko kasuetan.

4.– Inbertsio-proiektuetarako onartutako aurrekontuak gehitzea eragiten duten aldaketak egin arren, ez da onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa handitzea.

5.– Onartutako aurrekontuak gutxitzea dakarten aldaketek eman den diru-laguntzaren murrizketa proportzionala ekarriko dute, honako baldintza hauekin:

a) Exekuzio onerako bermea gordailatzeko obligazioa izaten jarraitzen du onuradunak, hasierako diru-laguntza emakidarekiko kalkulaturako zenbatekoen arabera

b) Diru-laguntza emakida baten, diru-laguntza aurrerakin baten ondoriozko ordainketarik izan bada, Eusko Jaurlaritzan elikagai-industrien arloan eskumenak dituen zuzendaritzak, beharrezko bada, itzulketa-prozedura abiaraziko du, salbu eta onuradunak ordainketa-eskabide baliozkoa bar aurkeztua izan, zeinetan zenbatekoa diru-laguntza aurrerakinaren halakoa edo handiagoa delarik.

6.– Egiten den aldaketa baten bitartez, 59.2 artikuluan zehaztu prozeduraren arabera emandako puntuaziori eragiten dioten aldaketak eragiten badira, Eusko Jaurlaritzan elikagai-industrien arloan eskumenak dituen zuzendaritzak berriro ebaluatu beharko du eskabidea, puntuazio berriaren zifra zehaztuz.

Berrazterketaren ondorioz emandako balorazio berria konparatu egin beharko da honekin: Nekazaritza eta Landa Garapenerako Sektoreko Konferentziak prestatu eta baloratu zuen inbertsio-proiektu hautatuen zerrenda behi betikoarekin, zeinetan jaso baitzen diru-laguntza ematea.

Diru-laguntza emakidako muga ekonomikoek ez dituzte gainditu behar aipatu zerrendaren arabera haren puntuazio berriari egokituko zaizkionak. Bada, hori bermatzeko, diru-laguntza emakida murriztu ahal izango da, eta posible izan daiteke eraginik gabe uztea bere osotasunean.

7.– Autonomia-erkidegoek gertatu diren aldaketen –baimen behar dutenen– berri emango diote Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari, NBEFko tokatzen den ekitaldiko apirilaren 1a baino lehen.

VI.– Finantzaketa.

1.– Europar Batasunaren ekarpenari laguntza-tasa maximoak aplikatu zaizkio, hau da, Kontseiluaren eta Europako Parlamentuaren 1308/2013 (EE) Erregelamenduko 50.4 artikuluan aurreikusitakoak.

2.– Europar Batasuneko beste herrialdeetan inbertsioei dagokienez, kontuan hartuko da haien kokapena, betiere laguntzaren ehuneko zehazteko.

VII. Aurrerakinak.

1.– Eusko Jaurlaritzan elikagai-industrien arloan eskumena dituen zuzendaritzaren aurrean, aurrerakin-eskabide bat aurkeztu ahal izango du onuradunak. Batzordearen ekainaren 27ko 555/2008 (EE) Erregelamenduko 19.2 artikuluan ezarritako zenbatekorainokoa izan ahalko da aurrerakin hori.

2.– Aurrerakina ordaintzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Pagatzailearen aldeko banku-berme bat edo berme baliokide bat osatzea eskatuko da, aipatutako aurrerakin horren % 110eko zenbatekoa duena; betiere, bat etorri Batzordearen 2008ko ekainaren 27ko 555/2008 (EE) Erregelamenduan aurreikusitako baldintzekin eta Batzordearen 2014ko abuztuaren 6ko 908/2014 (EE) Betearazpen Erregelamenduan ezarritakoarekin Euskal Herriko Diruzaintza Nagusian gordailatu beharko dira bermeak.

3.– Aurrerakin-eskabidea baiesteko, eskabidearen helburu den diru-laguntza emakidaren onuradunak, ezinbestean, onartua izan beharko du emakida hori, eta, bestalde, exekuzio onerako bermea gordailaturik izan beharko du, betiere abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuan aurreikusitako zehaztapenekin bat etorri. Aurrerakin-eskabidea aurkezteko epea hilabetekoa izango da, aipatu betekizun bi horiek konplitu direla egiaztatu eta hurrengo egunetik hara.

Halaber, aurrerakina ordaintzeko, ezinbesteko baldintza izango da enpresa eskatzaileak eguneraturik izatea, bai zerga-betebeharrak bai Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, bai diru-laguntzak itzultzeko obligazioak.

4.– Batzordearen ekainaren 27ko 555/2008 Erregelamenduko 19.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorri, onuradunek justifikatu egin beharko dute aurrekinaren guztizko zenbatekoa gastatu dutela proiektu edo eragiketaren exekuzioan, ordainketa egin osteko bi urteen barruan.

5.– Autonomia erkidegoek Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari jakinarazi beharko dizkiote aurrerakina eskatu duten proiektuak eta aurrerakinen zenbatekoak jasotzen dituen zerrenda, abenduaren 1a baino lehen jakinarazi ere.

6.– Laguntzaren saldoa ordaintzeko, jasotako aurrerakina deskontatutako da, egoki bada.

VIII.– Ordainketak.

1.– Eragiketak ordaintzea eskatu ahal izango da; ordainketa horiek partzialtzat joko dira, eta azken buruko ordainketaren baldintza berberak bete beharko dituzte.

2.– Ordainketa egiteko eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira, gutxienez:

a) Exekuzioaren memoria baloratua, non gastuak, fakturak eta ordainketak justifikatzeko agiriak

jaso eta zerrendatuko diren. Horiez gain, exekuzioaren memoriak honako hauek ere jasoko ditu: aurreikusitako lanen eta egindakoen artean diren aldeak, eta, beharrezko bada, ezinbesteko edo aparteko kasuen justifikazioa.

b) Ondokoen gaineko deklarazioa, onuradunak egindakoa: inbertsio bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso ez izana, eta diru-laguntzak itzultzeko prozesuren baten barruan ez egotea.

c) Diru-laguntza zein banku-kontura sartzea eskatzen den; bada, kontu horri buruzko erantzukizunpeko adierazpena, non eta kontu hori eta kontu bakarra bat ez diren.

d) Eraikinak erosten diren kasuetan, behar bezala kreditatutako tasatzaile independente baten edo behar bezala baimendutako organo edo erakunde publiko baten ziurtagiria ere aurkeztu beharko da; ziurtagiri horren bidez frogatuko da erosketa-prezioak ez duela gainditzen merkatuko balioa, lurzoruaren balioa merkatu-prezioen arabera banakatuta.

e) Gastuaren fakturak edo egiaztapen-balio baliokidea duten kontabilitate-dokumentuak, eta ordainketen ziurtagiriak.

f) Ordainketak egiteko erabili den kontu bakarraren laburpen bankarioa.

g) Bete behar den arautegian exijitutako beste edozein dokumentu, eta emakida-ebazpenean adierazitakoak, laguntza emateko beharrezko diren baldintza eta zirkunstantzietako batzuk egiaztatzeko.

3.– Laguntza-eskabidea aurkezten den egunetik hara, inbertsio-proiektuari dagokionez onuradunak egiten dituen ordainketak, banku-kontu bakarraren (soilik helburu horretarako denaren) bitartez egin beharko dira, salbu eta abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuaren XVII.1 eranskineko 5. paragrafoko a) eta b) letretan aurreikusitakoaren arabera seinalatutakoak; izan ere, kasu horretan horiei buruzkoak agiri bidez jaso beharko dira, behar bezalako kontrola egiteko auditoretzarako baliagarri izan daitezten.

4.– Diru-laguntza ordaintzeko, nahitaezkoa da inbertsioa justifikatzen duten kontuak aurkeztea. Kontu horiek egiaztatu egin beharko dira, hain zuzen ere Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean izena emanda duten kontu-auditore baten edo auditoria-sozietate baten bitartez; halakorik ezean, Eusko Jaurlaritzan elikagai-industrien arloan eskumenak dituen zuzendaritzak egiaztatuko ditu aipatutako fakturak eta dokumentuak. Egiaztapen horretan, laguntza-espeditante bakoitzaren gainean egindako in situ ikuskapen bat jasoko da, gutxienez.

5.– Onuradunak laguntza jasotzeko eskubidea izango du, behin –lekuan bertan– egiaztatuz gero, ezen onartutako eskaeran aurreikusitako jarduera bat edo zenbait egin direla, salbu eta Kontseiluaren eta Europako Parlamentuaren 2013ko abenduaren 17ko 1306/2013 (EE) Erregelamenduaren 2.2. artikuluan zehazten diren aparteko zirkunstantzietan edo ezinbesteko kasuetan.

6.– Kontrol horietan egiaztatzen bada: ez dela bete inbertsio-proiektuaren helburua edo ez dela exekutatu hasieran onartutako inbertsio-aurrekontuaren gutxienez % 70, bietan ere ezinbesteko zio edo aparteko zirkunstantzia ez diren kausengatik; bada, orduan eskatuko da ordaindutako zenbatekoak eta interesak itzultzea, eta exekuzio onerako bermea exekutatu da. Ezinbesteko zio edo aparteko zirkunstantzia ez diren kausa horiek, justifikatu egin beharko ditu laguntza jasotzen duenak, eta, agintaritza eskudunak, ostera, onartu egin beharko ditu.

7.– Ordaintzeko eskaera kasu honetan soilik baietsi ahal izango da: onuradunak zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekiko betebeharrak eguneraturik dituela egiaztatzen denean, eta, halaber, diru-laguntzak itzultzeko obligazioak.

IX.– Bermeak kentzea.

1.– Saldoaren ordainketa egiten den arteko balioa izango du exekuzio onerako bermeak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Pagatzaileak ezeztatzea erabakitzen duenean, orduantxe liberatuko da; betiere, jarraian zehaztutakoen gaineko egiaztapen administratiboa eta bertatik bertarakoa egin ostean: proiektuaren azken buruko helburu lortzea, operatibotzat jotzen diren inbertsioetan onartutako hasierako aurrekontuaren, gutxienez, % 70 exekutatzea, eta, halaber, egiaztatu beharko da ezen, onuradunak betetzen dituela zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzeko obligazioak, salbu eta Kontseiluaren eta Europako Parlamentuaren 2013ko abenduaren 17ko 1306/2013 (EE) Erregelamenduaren 2.2. artikuluan zehazten diren aparteko zirkunstantzietan edo ezinbesteko kasuetan.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Pagatzaileak laguntza jasotzeko behin betiko eskubidea errekonozitzen duenean, orduantxe liberatuko da aurrerakinaren bermea, Batzordearen 2008ko ekainaren 27ko 555/2008 (EE) Erregelamenduaren 19. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Laguntza jasotzeko eskubiderik izan ezean, aurreratutako zenbatekoak eta sortutako interesak itzultzeko exijituko da, edo, bestela, exekutatu egingo da bermea.

